

Mari Luz Esteban



haragizko erreformak



haragizko erreformak

Mari Luz Esteban

Pamiela Poesia, 59

978-84-9172-347-9

2022. urtea - 144 or. - 15x21,5 cm

15,00 €

Mari Luz Estebanek poema-bilduma guztietan harreman-sareetan arakatu du, gutasunak zein nitasunak gorpuztean elkarrekiko harremanek, afektuek eta pentsamenduek zer-nolako eragina duten poetikoki adieraziz. Lehen poema-bilduman, *Amaren heriotzak libreago egin ninduen* (Pamiela, 2013), amaren genealogiak arakatzearekin batera, senidetasun- zein afektu-sareek sorturiko tentsio, desira, zauri zein grinak arakatu zituen; bigarren poema-bilduman, *Andrezaharren manifestua* (Pamiela, 2019), zahartzea bizitzeko, gorpuzteko eta birpentsatzeko moduez jardun zuen, begirada feminista ardatz izanda.

Hirugarren bilduma honetan, genealogia geografikoetan, kulturaletan, sozialetan zein linguistikoetan arakatu du, askotariko adarkatzeez osaturiko genealogia afektibo eta politikoak poetikoki gorpuzteko. Lehen atalean, oroitzapenen txatal poetikoak osatzen ditu, haurtzaroko geografia afektiboetan arakatu, klase-kontzientziaren ernamuinak eta hizkuntza-kontzientziaren ernamuinak aletuz. Kontzientzia ernaltze horren bizipen, eszena edo oroitzapen modura gorpuzten direnek, pixkanaka teorizatze poetikorantz egiten dute jauzi. "Teoria makettoa" izeneko atalean kontzientzia ernaltze horrek sorturiko gogoeta poetikoa harilkatzen du, bere poetika edo bide estetikoa argitzeko urrats garrantzitsu bihurtzen dena. Bertan gurutzatzen dira aurreko ataletan printzaka aletuz joan diren zapalkuntza horien kontzientziak (feminista, herri-, hizkuntza- eta klase-kontzientzia...), posizio poetiko-politiko berri bat sortzeko, subjektu maketooarena, XXI. mendeko begirada batetik zeharkaturikoa. Berrero ere subjektu poetiko-politiko bat sortzeko gaitasuna erakutsi du Mari Luz Estebanek, XX. mendeko hainbat zapalkuntza gurutzatu gogoeta poetikora bilduz, XXI. mendekoak birpentsatzeko akuilu poetiko pizgarri direnak. (Iratxe Retolaza)



Mari Luz Esteban

Pedrosa de Valdeporres,

Burgos (1959)

Bertako Kurtzebarri Eskolan irakaslea izan zen eta testugintzan ere aritua. Bergarako Idazle Eskolako gradu-ondokoa bukatu ostean, bertako koordinatzaile eta sustatzaile izan zen.

Hitzak orbainetan poema liburua, 2007ko Felipe Arrese Beitia Saria irabazi ondoren argitaratu zuen (Euskaltzaindia-BBK Fundazioa, Bilbo, 2008). Ordurako irabazia zuen Bergarako Idazle Eskolako sorkuntza beka, eta taularatuak hainbat antzeslan. Liburu hartarako idatzi zuen: «Zer eta nola galderen erantzunak ditut bizi ardatz, horregatik, zeresana izan edo esateko moduan asmatzea dira idaztearen oinarri eta idazlearen erronka».

2009an eman zuen argitara *Denbora enaren hegaletan* (Pamiela). Ordurako itzuliak zituen *Wilnoko gutunak* eta argitaratuak Marina Tsvietaievaren biografiarekin *Egan* aldizkarian (LXII. alean). Denboraz, sormenez eta sorminez idatzitako liburuan, enara beltzen hegaldi gera ezinaz aritu zen.

2011n argitaratu zen berak hil ala biziko aldi idatzitako *Itsaso kontra bat* (Pamiela). Liburu hau Espainako Poesia Sari Nazionalerako hautagai izan zen. Karmele Igartua Bengoa poeta garaikidea izango da bere garai-garaikoa izan zelako, eta berak hainbeste estimatzen zuen Marina Tsvietaievaren hitzetan «Garaikide izatea norberaren denbora sortzea baita».



948 326 535 • www.pamiela.com • soltxate@pamiela.com